

# Txindokiren zatitxo basatia

GUILLERMO ROA ZUBIA

## Amets zahar bat

Larraitzen gaude Alotzara joateko prest. Tolosatik ekarri gaituen autobusatik jaitsi eta hantxe gelditzen naiz, beti bezala, nire gainean altxatzen den mendiari begira: Txindoki. Bere zatitxo basatia ikusten dut...

—Gogoratzen zara Ifarraldea igo gineanean?

—Bai. Berriro egingo nuke. Hitz hauekin nire burua atzera doa 1984eko Otsailaren 12raino. Askotan bezala gu hemen ginen eta Txindoki gure gainean.

Egun hartan elurpean zegoen... elurra eta jela. Baina eguraldia ona zenez gero (ba zeuden hodeiren batzu) eta honekin asko amets egin izan genuelako, azkar joan ginen Ifarraldearen hasierara.

Hara heltzeko aldapa gogorra da baina badira momentuak ez garela nekatzen. Ilusioa da ezagutzen dudan glukosarik hobere-na.

—Iiuuuuuu! Esan dezaket nire oina Txindokiren Ifarraldean dagoela. Hasiera da elurrezko kanal estu bat. Hiru lagun geunden: «Etxebe», «Maikol» eta ni. Askotan etorri gara Txindokira, baina inoiz ez halako gogoe-kin.

Begibistarekin igotzen dut kanala Larraitzetik. Hemendik ematen du basoan galtzen dela kanal hau zabalduz doa. Bere bukaera harrizta bat da. Kanala (eta harrizta) bukatzean basoa dator. Ezkerrean basotik irtetzen ziren zenbait pareta geneuzkan. Kanala igotzen bukatzeak Ifarralde honen giroan sartu gintuen. Ez ginen gehiago arrotzak sentitzen.

Kontuz hemen: bidea galtzeko arriskuan gaude. Hain zuzen ere bidea galdu genuen. Ezkerretik sartu behar da basoan eta gu eskubitik sartu ginen. Basoan sartu ta gora. Generaman altimetroa 800 metro markatzen zituen. «Zer duk hau? 800 metro?» Horrek bi erantzun ditu: ia igoeraren erdian geunden

edo eguraldi txarra hurbiltzen zen gu konturatu gabe. Baina lasai geratu ginen Larraitz oso urrun dago eta. «Gezurra ematen du baina 400 metro igo ditugu» esan genuen eta gora joan ginen. Laister aurkitu genuen gauza bitxi bat: elurrik ez zeukan harkaitz batetik, jelaturiko iturri bat agertzen zitzaigun. Udaberrian, euria egiten duenean, normalean da harkaitz batean iturritxo bat aurkitzea. Baina harkaitz hartan geneukana zen jela hutsazko hari bat. Igoera guztian zehar askotan aurkitu genuen hau. Honek pentsarazi zigun: goian jela egongo balitz ezin genuke igo. Dena den gora jo genuen.


Basotik pixkat ibili ondoren, konturatu ginen gaizki genbiltzala: Aizkorri eta Anboto ikusten ziren... ezkerrean joan behar ginen azkar.

Pixkat bilatu ondoren zeharka zihoan bidedexka bat aurkitu genuen eta, ia korrika, pagoen zehar ezkerkaldera abiatu ginen. Berriro bide ona hartuz igoeraren hurrengo zatian murgildu ginen.

*Txindokiko ifarmendebaldea.*

*Foto Santiago Yaniz*





Txindokiren ifarraldea, Larraitzetik ikusita

## Eskaloiak eta terrazak

Hurrengo zati hau oso berezia zen. Dena eskalonaturik eta terrazaz terraza zihoan. Eskaloiak ez ziren bertikalak (inolaz ez) oso etzanak baizik. Igotzen genuen neurrian jela gehiago agertzen zen. Hasieran hariak besterik ez izan arren, gorago gehiago agertzen zen eta oso itxura politak izaten zituen. Gehienetan karanbanoak ziren.

Larraitzetik ez dira harrizko terrazak ikusten ezta eskaloiak ere. Egia esan ez ziren gauza handirik, basoak estaltzen zuen zona berezi bat bakarrik. Baina oraindik gogoratzen dut han geudenean. Altimetroa 1.100 metrotan zegoen, eta hori ezinezkoa zen.

Gurutzatu behar genuen zenbait zati jela-tuak zeuden. Eskaloi batzuetan eskua sartzeko zuloak jela-tuak zeunden. Baita eskua-ekin eusteko pagoen adarrak jela eta karanbanoak zituzten. Horrelako pasuetan teknika berezi bat erabiltzen genuen: Etxebe eta Maikol artean bultzatzen ninduten irris-taka gora. Ni goitik Etxeberi laguntza ematen nion eta, azkenik, bion artean Maikol igotzen genuen. Dena den teknika berezi hau erabiltzeko zatiak oso gutxi ziren eta askotan alboko pagoari eskua botatzen genion.

Beti ezkerkaldera joanaz basoaren bukaeran agertu ginen. Zeure buruari bizitza konplikatzeko badiozu... zeure buruak ezingo du pasuren bat eman eta alboko harkaitzetatik irten beharko du!

Azken zatia agertu zitzaigun. Nekaturik geunden. Larraitzetik basoaren irteeraraino bi ordu erabili genituen. Jela ez zen problema handirik, baina honi bidearen galtzea

gehitzen badiogu, esan daiteke ia ordu bat galdu genuela.

Basoaren irteeratik Txindokiren Mendebaldeko aristara joan behar da. Irten-toki hori garbi ikusten da Larraitzetik. Han goian ere oso garbi zegoen. 50-100 metro-tako aldapa baten ondoren koba bat aurkitzen da (Koba? ...hobeto sargunea). Aldapa horretatik oso polita da Larraitzeko bista. Koban igoera guztiaren karanbanorik handienak aurkitu genituen: 1'5 metro-takoak ziren. Han gelditu ginen pixkat: altimetroa iadanik 1.350 metro markatzen zuen. Eta honen arrazoia aurkitu genuen. Aldapak duen bista desagertzen joan zen. Lainoa zen zergatia. Aranatik igo zen dena estaliz. Baina koban egonez ez dago galtzerik. Kobatik aristarara oso metro gutxi daude.

## Mendebaldeko aristan

Aristara irten eta gora abiatu ginen. Teorikoki ezkerkaldean Ifarraldea zegoen; esku-bian, Txindokiren paretarik zailenak... lainorik ez dagoenean. Arista hau oso estua da eta izan genuen lainoarekin Zerurako zubi bat ematen zuen. Ez zen ezer ikusten ez aurrean ezta atzean ere. Kobatik 10 edo 15 minututara gurutze batekin topatu ginen. Hemen hil zen neska baten oroipenean jarritakoa zen. Gailurra hurbil zegoen; gu, nekaturik eta urdurik... Gure ametsak egia izatera hurbiltzen ginen... Pixkat aurrerago jendearen soinua entzuten zen: gailurraren jendea. Oraindik minutu pare batean ibili eta pixkat trepatu. «Laranja azalak... jendea... bertan gaude».

Altimetroa 1.500 metrotan zegoela eta Larraitzetik bi ordu t'erdia generamala, gailurrera heltzen ginen. Txindoki (benetazko izena Larrunari), 1.341 metro. Ikusi genuen lehenengo hiru mendizaleak harriturik zeuden gu ikustean. Dirudienez ez ziren askotan etortzen Txindokira: galdetu ziguten ea gure bidea bide normala zen ala ez.

Oso pozik geunden. Udan eta bidea ondo ezagutuz gero, igoera hau 1:30 ordutan egin daiteke lasaiki.

Agian bide normala baino azkarragoa da (gutxienez jaisteko).

Gailurrean bazkaldu genuen. Beti esan dut: gailur batean eta lagunekin egiten den bazkaria hobeto sartzen da. Elkartasunaren zori ontasuna.

Egurralako lepotik jaitsi ginen. «Ifarraldean hemen baino jela gutxiago zegoen». «Bai, zailagoa da hemendik zutik ibiltzea... Au!» Kolpez kolpe behera joan ginen. Gure ametsa ez zen bakarrik ametsa: Txindokiren zati-txo basatia gurutzatu genuen... eta neguan!

— Beno, tira! Besteak ia Alotzan daude!

— Banoa. Hemen geratu naiz Ifarraldea ikusteko.

— Bai, bai. Ezagutzen zaitut. Aurrera, gaur bidetik joan behar dugu. Nire lagunik handienarekin joaten naiz. Amets berriak egin ez... berriro egin behar dugu... udan.

## Datuak: TXINDOKI (1.341 m.)

**Ifar aurpegia.** 932 metro Larraitzetik. F. sup (Neguan zailago) Udan 1 h. 30 m. - 2 h. Neguan 2 h. - 30 1984.eko Otsailaren 12an egindako igoketa.

## Mendizaleak:

Mikel Oria «Maikol» - 16 urte

Luis Etxeberria «Etxebe» - 13 urte

Guillermo Roa «Willy» - 15 urte